

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

Talde Popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udaltzaren Organo Araudiko 98. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, Gune Publikoen Batzordean (Obra keta Zerbitzuak) Donostiako Menchu Gal parkeko eraikinaren emakidaz eta hura kasu eginda edukitzeaz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Menchu Gal parkeko lorategiak eta eraikina erabat utzita daude, aspalditik utzita ere, eta badute txukuntzeko eta egokitzeko premia ederra, itxuragatik eta osasunagatik.

Haren utzikeria egoerak oraindik eta okerragoa ematen du, gainera, aurrean duen parkearen itxuraren aldean jarrita. Izan ere, Araba parkea erabat berritu zuten orain dela hogeitun bat urte, eta parke txiki bat, skate park txiki bat, lorategiak eta harri txiki solte batzuk ziren lekuan, hirian den parkerik moderno eta handienetako bat daukagu orain.

Amara auzoa eta hiriaren erdigunea elkarrekin lotzen diren lekuan dago Menchu Gal parkea, eta, hori dela eta, estetika bereziko parke txiki bat izan behar luke hark, han baitugu urtean egun gutxi batzuetan loratzen den gereziando japoniar bat ere, nahiz eta Udalaren kudeaketatik kanpora utzi dagoen hura, zergatik ulertzerik ez badago ere.

Egia da, Donostialdeko Metro-Topoa egin eta Euskotrenen trenbideak handik kendutakoan, izugarritzko garrantzia izango duen lan bat egitea pentsatuta dagoela orain parkea den lekuan. Baina ez da gezurra lan hori egin arte ez litzatekeela horrela utzita eduki behar horrelako toki bat, jende asko biltzen baita han eta egokitu egin behar bailitzateke, erdialdea PIO XII.eraingo handitzeko.

Amarako bizilagunak eta donostiar asko parke hori hobetzeko eskatzen ari dira. Garai batean, eraikin horretan kafetegia irekitzeko proiektua izan zen. Oso modu ona inguru hori biziberritzeko. Adineko pertsona askok ilusioz irudikatzen zuten hango terrazan gelditu eta zerbait hartu ahal izatea erdialdera paseoan zihozela atsedean hartu bitartean. Hirirako toki estrategikoa da. Enpresa batzuk lehiatu ziren kontratua hartzeko, eta haietako bati eman zitzaion azkenean. Baina hark proiektua formalki aurkeztu zuenean, era guztietako oztupoak jarri zizkion Udalak hari jarduera aurrera eramateko:

- Jende guztiarentzako komunak izatea.
- Tamaina handiko komunak izatea (eraikinaren tamainaren aldean).
- Eraikinaren itxura aldatzeko arazoak, eraikin berezia zelako.
- Neurri jakin bateko barra izatea.

- Eta abar.

Itxura denez, alderdi guztiei gustatzen zitzaien proiektua zen. Benetako ordua ailegatu zenean, ordea, ez zen malgutasunik izan eta oraindik ere hutsik segitzen du parkeak. Horren eraikin ederra eta berezia izan arren, hezetasuna eta goroldioa hartzen ari da, eta arratoiak lasai asko ibiltzeko moduko egoera tamalgarrian dago. Zenbait ordutan, beldurra eta segurtasun falta ematen duen tokia da.

Hala, bada, Menchu Gal parkearen eta han den eraikinaren etorkizunak batere zehaztu gabe segitzen duenez, hauxe da talde popularrak dakarren

KONTROL MOZIOA:

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio egokitu eta hobeto jartzeko parkea, hango landaredia, garbitasuna eta osasungarritasuna, eta txukuntzeko garai bateko komun publikoen eraikina ere.
2. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio beste ustiapen aukera bat emateko komun publikoen eraikina kafetegi bihurtzeko lehiaketa irabazi zuen esleipendunari behin-behingo, toki horretan edo hiriko beste edozeinetan ustiatzeko, ez dira lehengo baldintza haiek betetzen eta.
3. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio kronograma bat aurkezteko, Euskotren-en trenbideak lur azpitik pasatutakoan inguru hura berrantolatzeko aurreikusitako epeak ekarriko dituen.

Donostian, 2020ko ekainaren 18an

Borja Corominas Fisas,

Talde Popularraren bozeramailea